


INFO

Irakaskuntza Heziketa Berezia



Negoiaziorako gaien ekarpenak egin ditugu

Urriaren 20an foroa egin genuen eta bertan lan hitzarmenaren negoziatziorako gaiak landu genituen

<https://irakaskuntza.lab.eus/>

- Araba:** 648735679
heziketabereziaaraba@lab.eus
- Bizkaia:** 666778152 / 666771867
heziketaberezia@lab.eus
- heziketabereziabizkaia@lab.eus
- Gipuzkoa:** 666775703
heziketabereziagipuzkoa@lab.eus

Azken infoan azaldu genizuen bezala, EAEko heziketa bereziko mahai negoziatzailea martxan dago. Helburua lan hitzarmen berria lortzea izango da eta horretarako oinarria, LAB eta hezkuntza sailaren arteko akordioa izango da.

Administrazioak, negoziatuko ditugun gaien zerrenda helarazi zigun. Urriaren 20an LABeko heziketa bereziko foroan hauek aurkeztu eta ekarpenak jaso genituen.

Hauek dira hezkuntza sailak proposaturiko gaiak:

- Lanpostuen zerrendak:** akordioan jasota dagoen bezala behin-behinekotasun tasa %5etik behera egongo da deialdia gauzatzen den ikasturtean eta hau kalkulatzeko lanpostu hutsak edo bakantean hartuko dira kontuan.
- Hornidura:** LEP ereduaren negoziatuko da eta egungo beharretara egokitzuz eta prestatzeko materiala emango da, hauek hiru urtetik behin gauzatuko dira eta hizkuntz-eskakizunik gabe eskaintzarik ez da egongo.
Lanpostuen esleipena, langileen egonkortasuna, mugikortasuna eta hauek nora egon behar diren atxikituta negoziatuko da.
Zerrendetan izena emateko eskatuko den titulazioa, hizkuntz eskakizuna eta prozedura ere negoziatuko da.
- Lan baldintzak:** urteko lan orduak eta asteko lanaldia negoziatuko da. Gure kolektiboari dagozkion funtzioak berrikusiko dira eta ikasleen tipologiaren inguruan ere arituko gara. Jangelan ematen dugun arreta aztertuko da.
Baimenak eta lizentziak egungo egoerara egokituko dira.
2024-2026 HLEen soldata partzuergoko hezitzaileenera parekatuko da.
Plantillak gaztetzeko planetan neurri indibidualak eta kolektiboak negoziatuko dira.





LAB sindikatutik negoziatzeko gaien inguruko ekarpenak bidali dizkiogu hezkuntza sailari. Horretarako, lan hitzarmenaren negoziaketaren aurreko fasetik landuak genituen gaiak kontuan hartu ditugu baita foroan ateratako ekarpenak ere.

Hauek dira LABetik negoziatzeko gaiei egindako ekarpenak:

1. ZHI eta traskribatzaileen soldatak ere HLEen soldatarekin batera igotzea.
2. Ratioak negoziatzea
3. Lekualdatze lehiaketa
4. Ordezkoen araudia osatzea
5. Lan eta osasuna uztartzeko neurriak hartzea
6. Formakuntzarako eta euskalduntzeko aukerak zabaltzea
7. Berdintasun plana diseinatu eta martxan jartzea

Bada garaia gure kolektiboak behar duen aitortza jasotzeko eta LABetik hori lortzeko behar den lan guztia egingo dugu.

Gauzak horrela, hurrengo mahai negoziatzailea azaroaren 10erako aurreikusten da. LABentzako ezinbestekoa izango da afiliazioarekin lanketa egitea. Beraz, neguko oporrak bitarte, honetan buru-belarri ibiliko gara. Asanblada eta foroak antolatzeaz gain, eskoletara joango gara. Prozesu hau kolektiboki egiteko ahalegin guztiak egingo ditugu.

Asteazkeneko greba egunak ere merezi du aipamena egitea. Sekulako indar erakustaldia egin genuen. Gora gu! Hurrengo borroka eguna azaroaren 30ean daukagu. Zaintza eskubide kolektiboaren alde jarri ditzagu orain gure indar guztiak!

Animo eta borrokara!